

Ekologismoa Plaza Hutsean_

Krisi ekologikoari
Euskal Herritik erantzunez

Krisi ekologikoari Euskal Herritik erantzunez_

Kokapena_	5
Testuinguruari begirada_	7
Mugimendu ekologistaren aktibazioa_	9
Gugandik hasi_	11

Kokapena_

Plaza Hutsa ezkerreko independentistion espazio horizontala da, herrigintzan antzematen ditugun erronken gaineko gogoeta estrategikoa modu kolektiboan lantzeko. Otsailaren 22an Gasteizko Europa jauregian egingo dugun Plaza Hutsa tailerrean euskal mugimendu ekologistari begiratzeko tartea hartuko dugu.

Bistakoa da larrialdi ekologikoaren garai honek erronka kolosalen aurrean jartzten gaituela. Bada garaia gai hau gure agendaren lehen lerrora ekarri eta ezkerreko independentismoaren ahalak aktibatuzeko Euskal Herritik eman beharreko erantzunaren mesedetan. Tailer honetan euskal mugimendu ekologistaz jardungo dugu, honako hipotesi honen bueltan: Hego Euskal Herrian, mugimendu, elkarte eta norbanakoen saretzea eta baterajotzea ezinbestekoa zaigu garai honek eskatzen duen erantzuna antolatze aldera. Ipar Euskal Herria erreferentzia ona da zentzu honetan, eta beraz, ipar-hego harremanak estutzeko beharrean gaude.

Halaber, gugandik hasi behar duen iraultza kulturalaz mintzatzeko tartea ere hartuko dugu, ideologia neoliberalak zein sakon konkistatu gaituen eta ezinbestean geure bizimoduak auzitan jartzearen beharraz gogoeta eginez.

Testuinguruari begirada_

Testuinguru historikoa oso berezia da. Krisi ekologikoa bizi dugu. Aldaketa aroan gaudela diogu, baina aldaketak hain dira handiak eta hain datoz azkar ezen aro-aldaketa baten aurrean gaudenaren sentipena gorpuzten ari den. Aldagai bakar bategen balio digu egoerari neurria hartzeko: klima larrialdiak hamarraldi bateko tarteak uzten du erreakzionatzeko. Tarte horretan, garapen eredua sakonki eraldatzen ez bada kolapso zibilizatorioa aukera guztiz erreal da.

Testuinguru historiko hain arriskutsu honetan, kaosari eta autoritarismoari aurre egin nahian ari diren eraldaketa egitasmoek, arriskuez gain, aukera berriak ere izango dituzte. Inoiz ez baita hain agerikoa izan hainbeste jenderen begietara, datozen urteetan izango den gisan, kapitalismoari kontrajartzen zaion ordena berri baten beharra.

Argiak behar dugu diagnosian eta aurrera begirako planteamenduetan: ez dago soluzio teknologikorik, sistema ekonomikoaren paradigma errotik aldatu gabe ez dago soluziobiderik. Planetarekiko, biodibertsitatearekiko eta ekosistema horiekiko menpekoak garen pertsonetikiko errespetuzkoa den garapen paradigmatik gabe ez dago krisi ekologikoari aurre egiterik. Ekologia politikoak arrazoia du: arazoa politikoa da, eta soluzioa baita ere.

Testuinguru historiko honek mugimendu ekologista sendo baten presentzia eskatzen du: Nola antolatu Euskal Herrian krisi ekologikoak eskatzen duen erantzun maila? Zein da Euskal Herritik garai honi eman beharreko erantzuna? Mehatxua hain da handia eta globala ezen jada ez den aski proiektu konkretuei aurre egitearekin. Hori ere bai, baina hori baino gehiago behar dugu. Ikuspegi partekatu bat eskatzen du garai honek, beharrezkoa deritzogu mugimendu ezberdinen sare-tzea eta baterajotzea. Eta erantzuna euskal eskalan artikulatzea.

Euskal Herria erresilientzia eskala gisa antolatzea, euskal egitasmoa erresilientzia egitasmo gisa gorpuztea. Hori da Euskal Herritik klima larrialdiari eta krisi ekologikoari eman dakioken erantzun onena. Beste leku askotan baino baldintza hobekak izan ditzakegu Euskal Herrian horretarako. Abangoardia izan behar dugu beraz, erreferenteak Europa mailan. Asmo honek herri gisa dauzkagun gaitasun komunitario guztiak aktibatzea eskatzen du.

Mugimendu ekologistaren aktibazioa

Euskal Herrian inork ez du klima larrialdia ukatuko. Baina zuzenkeria politikotik eta propaganda instituzionaletik harago, euskal eragile politiko eta instituzionalen konpromisoak urrundik ere ez daude larritasunaren neurrian. Ekonomia berdea ez da baleko erantzun bat inondik ere. Paktu ekologiko handi baten ideia mahaigaineratzeko garaia da, zeinak etengabeko hazkunde ekonomikoa auzitan jarriko duen eta berdintasun soziala eta baliabide naturalen ustiapena eskutik helduta ulertuko dituen.

Beharrezkoa zaigu larrialdia gizarteratzea eta eztabaida sozial eta politikoaren lehen lerrora ekartzea. Horretarako, ezinbestekoa da mugimendu ekologistaren bultzada sendoa. Euskal Herrian mugimendu ekologistak ibilbide oparoa egin du, hainbat proiektu txikitzaile paralizatzeko gaitasuna adieraziz gainera. Azken urteei erreparatuta, aipagarriak dira Garoñaren, AHT-aren, Fracking-aren, tentsio altuko lineen edota errauskailuen kontrako mugimenduak. Badira baita egitasmo komunitarioak eta hainbat mugimendu pentsamenduaren esparruan eta akademian – ekosozialismoa, ekofeminismoa eta abar—. Urrats kualitatibo bat emateko ordua

iritsi zaigula deritzogu ordea. Esan bezala, ezinbesteko deritzogu saretzea eta baterajotzea garai honen larritasunari eskatzen duen neurrian erantzungo badiogu.

Gai honek agenda sozial eta politikoaren lehen lerroan behar du, eta horretarako beharrezkoa da molde askotariko aktibazio soziala. Bizi mugimenduak jorratu duen bidea erreferentzia on bat izan daiteke zentzu horretan. Halaber, beste mugimendu sozial emergente batzuekin –feminismoarekin bereziki– artikulazioak bilatzeko garaia dela deritzogu.

Gugandik hasi_

Feminismoak irakatsi digu geure buruak kuestionatzen. Zapalkuntza guztiek zeharkatzen dituztela geure gorputzak, zapaltzaile eta zapaldu izan gaitzkeela aldi berean, eta beraz, botere harremanei dagokienez non gauden galdetu behar diegula geure buruei une oro. Kasu honetan zapaldua ingurumena da, eta beraz, ezinbestekoa zaigu gutako bakoitzak ingurumenarekiko dugun harremana une oro auzitan jartzea, gure bizimoduak kuestionatzea. Mundua eraldatzea ez da gu aldatzea, baina eraldaketa gu aldatzetik hasten da.

Ni-an hasi eta ni-an bukatzen den mundua sortu du kapitalismoak, askatasuna norbere baitan hasi eta bukatzen dela sinetsarazi digu. Plataforma teknologiko handiak gure datu pertsonalen jabe egin dira, gure desira eta espektatibak kontrolatzen dituzte, etengabeko kontsumoan oinarritzen den hura izan dadin imajina dezakegun bizimodu desiragarri bakarra. Neoliberalismoak gure bizitzen esparru intimoenak ere kolonizatu ditu. Eraldaketa materialaz batera, ezinbestekoa da iraultza kultural bat: bestelako bizimoduak eta mundua imajinatzea, inoizko alienazio forma bortitzena denari izkin egitea. Imajinatu soilik ez, praktikara eramanez ere bai. Ezkerreko independentistok eredugarri behar dugu soiltasunean eta bizimodu emantzipatuekiko engaiamenduan.

Bi dokumentu gehigarri baliatuko ditugu gogoetarako material gisa: Erria aldizkariaren azken aleko Mikel Oteroren artikulua, eta Irtzar eta Ipar Hegoa Fundazioek publikatu duten “Larrialdi klimatikoa, zuriketa ala alarma gorria” txostena:

<http://iparhegoa.eus/images/argitalpenak/larrialdiklimatikoa.pdf>

<http://erria.eus/erreportajeak/krisi-ekologikoa-oholtza-politikoaren-erdigunean>